

Agurra. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka. Artisauen Katalogo Orokorra


1979. urtean Errenteriako Euskal Herriko Lehen Eskulangintza Azokari hasiera eman zion ekitaldiko protagonista izateko ohorea izan nuen. Maizteko lehen ostirala zen eta niri egokitu zitzaidan Alameda zinean hasierako hitzaldia ematea. Ereintza Elkarteko gazte kementsuek hainbat hilabetez kontu handiz eta etorkizun-sen handiarekin antolatutako jardunaldi haren hasierako ekitaldia izan zen nirea.

Liburu honen beste atalen batean azaltzen denez, sektorearekin harremanetan hastea ez zen lan erraza izan, garai hartan ez baitzegoen ez artisau-elkarterik, ez erroldarik, ez eta erregistro profesionalik ere. Gauzak horrela, antolatzaileek Euskal Herriko Eskulangintzari buruz nik idatzitako eta Auñamendi argitaletxeak argitaratutako liburuez baliatu behar izan zuten 1979. urteko lehen azoka hartan parte hartzera gonbidatuta zeuden 16 artisau haiek hautatzeko.

Errenteriako azoka behar den bezala baloratzeko, bai jatorriari eta bai denboran izan duen jarraitasunari dagokionez, gogorarazi behar dugu garai hartan artisauak gehienetan egoera oso larrian edo desagertzeaz zeudela, lanbide zahar batzuekin gertatzen zen moduan. Galeraren larritasunaz jabeturik, gure artisauen bizimodu eta lanari buruzko azken testigantzak jasotzeko erabakia hartu nuen, orain lau hamarkada. Gainbehera hura ikusirik, bilketalanari ekin beharrean aurkitu nintzen, izan ere, artisau-semea naiz eta familiak zeukan tailerreko argizari eta parafina artean hazi ninduten. Harrezkero, makina bat lanbidetan jarri dut arreta, teknika ez ezik hartaz baliatzen diren pertsonak deskribatu nahi izan ditut eta eskulangintza bere osotasunean erakusten saiatu naiz: eskulana eta eskulangilea. Lan honen guztiaren emaitza nire hainbat liburu eta monografiatan bildu dut. Zortzi tomotan bildu ditudan nire *Obras Completas* liburu-sortako zati handi bat eskulangintzaren inguruan idatzi dut. Prentsaren bidez ere saiatu naiz Euskal Herriko Eskulangintzaren zabalpena bultzatzen. Baina ez hori bakarrik, zinearen bidez ere ahalegindu naiz Euskal Herriko eskulangintza ezagutzera ematen. Izan ere,

Errenteriako lehen azoka egin eta handik egun batzuetara Pio Caro Barojaren *Guipúzcoa* filma estreinatu zen Donostian. Filmaren gidoia Julio Caro Barojak idatzi zuen eta ni aritu nintzen aholkulari-lanetan. Film horretako irudietan Euskal Herriko artisau zaharretako batzuk beren eguneroko lan-eremuan ikus ditzakegu.

Oso pozgarria da niretzat orduan idatzi nituen hitzak, hazien modura, paperaz haraindi hedatu direla ikustea. Hazi haiek, Ereintza Elkartean lan emankorrari esker, azoka oparo bihurtu dira. Bihoakio nire aintzatespenik zintzoena Ereintzari urtez urte Euskal Herriko azoka nagusia gorenean edukitzeko egiten duen ahaleginagatik.



Agurra = Saludo. - En : *Euskal Herriko Eskulangintza Azoka. Artisauen Katalogo Orokorra = Feria de Artesanía del País Vasco. Catálogo General de Artesanos*. Errenteria, 1979-2003. - Errenteria : Ereintza Elkartea, 2003. - 269 or. : ir. ; 21 cm. - XXIII. or. - OC. T. 9, p. 297-299